



ERRIGORA

Errigora ekimenak, **Euskarari puzka**, udazkeneko produktu salmenta kanpaina, jarri du abian.

Ekimen honen bidez bildutako dirua Nafarroako hegoaldeko euskalgintzara bideratuko da: Lodosa, Viana eta Tuterako ikastolen biziraupenera, Erriberako AEKra eta D eredua Nafarroa osoan hedatzeko ekimenetara.

Horrez gain eremu horretakoak propio diren produktuen salmenta bultzatzen du ekimenak. Aurten 3 saski ezberdin eskaintzen dira aukeran, 50, 60 eta 70 euroko prezioekin.

Laudio Ikastolan udazkeneko saskia erosteko aukera luzatuko dugu **azaroaren 20ra arte**. Saskien kobrantza abenduko errezi-boan bideratuko dugu eta saskien banaketa ere abenduaren 9tik 18 bitartean egingo da.



BELTZA-BETIKOA

Orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, botila ardoa, oliba-olio birjina esotra, potxak, mahats-zukua, zainzuri-krema, teilak, melokotoia almibarrean, kardua, tomate frijitua, piper txorizero mamia.

BERDEA-EKOLOGIKOA

Orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, botila ardoa, oliba-olio birjina esotra, potxak, mahats-zukua, arroza, pasta, barazki-mestera, ozpina.

ZURIA-BEREZIA

Orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, ardoa (kriantza), patxarana, ardo apartsua, polboroiak, patxaran mantekatuak, txokolatezko arrokak, pikillo piper marmelada.

eskaera egin